

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuaren kultura-agenda aste honetarako

Nafarroako Gobernuak ekitaldi berriak prestatu ditu datorren asterako, ekainak 18tik 24ra

Astelehena, 2018.eko ekainak 18

[Aste honetan](#) Nafarroako Museoak hiru hitzaldi proposatzen ditu: asteazkenez, “Bertsolaritza kultura-intereseko ondasun bilakatzeko adierazpenaren aurkezpena”; ostegunean, “Espartzuaren kultura eta paisaiaren aldeko babesa” eta igandean “Laxoa kultura-intereseko ondasun immateriala bilakatzeko proposamenaren aurkezpena”



Ostiral honetan Eñaut Elorrietak kontzertua eskainiko du Tafallan.

Zinemari dagokionez, Nafarroako Filmotekak badu eskaintza eder. Asteazkenean Martin Ritt-en “Odio en las entrañas” pasako da, ostegunean Takeshi Kitano zuzendari handiaren “Flores de Fuego” eta ostiralean egitarau bikaina osatzeko Andrew Niccol-en “Gattaca” filmea izango da ikusgai.

Musikak badu proposamen bikoitza eta anitza ere bai. Alde batetik, Ken Zazpi-ren abeslaria den Eñaut Elorrietak bere bakarkako lana aurkeztuko du ostiralean Tafallako Kulturgunean. Bestetik, Aibarreko Aritza Abesbatzak, leku bikain batean arituko da, Orreagako Elizan larunbatez.

Formakuntzari dagokionez, Nafarroako Liburutegiak tailer bi proposatzen ditu: idazten eta irakurtzen irakasteko prestatutako “Lectura fácil” astelehenetik asteartera eta Regina Salcedoren sorkuntza idazketa tailerra asteazkenez. Huarte Arte Garaikideko Zentroari dagokionez, Komisariotzaren Inguruko Ikerketak Garatzeko Egoitzak lanean darrai eta “Artxiboa plazara!” tailerrak aurrera egiten du ere bai. Gainera, ostiraletik igandera Super 8 formatuan aritzen ikasteko tailerra zabalduko da Zentroan. Era berean, Lizarrako Karlismoaren Museoan prestatu den Escape Room proposamena gozatzeko aukera dago oraindik.

Erakusketen alorrean, Nafarroako Museoak “José Latova. Argazkigintza arkeologikoan 40 urtez” erakusketa eskaintzen du. Bere aldetik, Oteiza Museoak “Interpretazioak” programarekin jarraituko du, Imanol Marrodanek Alzuza Zentroan sortu duen lanarekin: “Arma isilak gerra lasaietarako”. Era berean, Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak

“Futbola Nafarroan” erakusketa-txikia hartuko du. Bukatzeko, gogoratu behar martxan dela Nafarroako Museo Zerbitzuak bultzatutako proposamena: “Pasaporte a Museatu! eta bidaiatu”.

Azkenik, aste honetan, Iruñeko katedraleko klaustroan egiten ari diren lanak ezagutzeko ateraldiak antolatuko dira berriz ere.

Programazio kultural osoa [hurrengo estekan](#) kontsulta daiteke.